



## FUNTSEZKO BALIABIDEAK

GAIU enpresa berri honetan, esan daiteke lau funtsezko baliabidek ditugula.

**Baliabide fisikoen** barruan; instalazioak, bulegoak, ibilgailuak, makinak, sistema informatikoak, salmenta puntuak eta banaketa sarea ditugu.

Gure kasuan; Uxueren baserriko aroztegi tailerraz gain garaje bat ere badugu produktuak sortu eta diseinatzeko. Honez gain; banaketak burutzeko kotxeak zein furgoneta ere baditugu. Gainera; produktua diseinatzeko eta sortzeko zuloak egiteko makina, egurra mozteko makina edo erramienta kaxa bezalako materiala dugu.



Aurretiaz aipatu bezala; gure salmenta puntu nagusiak azokak izango dira, web-orriaz gain, eta saldutako produktu horiek banatzeko, garajetik bezeroaren etxera helduko zen sare bat izango dugu; auto edo furgoneta bidez.

Enpresa honetan; baliabide intelektualak enpresaren marka edo **izena "GAIU"**, **NAN zenbakia eta IFZ** izango dira. Honez gain; gure jaboien eta beste **produktu batzuen errezeta sekretua** ere baliabide intelektual hauen barruan sailkatuko litzateke.

Argi dago, gure proiektuaren kasuan, oinarrizkoak direla giza baliabideak. Izan ere; **aktibo garrantzitsuenak dira Amaia**ren **teknologia berrietarako gaitasuna, Iraitzen sormenerako eta diseinurako abilezia, Gorkaren salmentarako eta harremanetarako gaitasuna eta Uxueren aroztegitzarako edo produkziarako abilezia.**



Azkenik; finantza baliabideak materiala erosi, edozein motatako erosketak egin edo negozioa zabaltzeko beharrezkoa den eskudirua edota kreditu lineak izatea ahalbidetzen diguten baliabideak dira.

Gure enpresa berri honetan; funtsezko baliabide gisa gure aurrezkiak erabiltzeaz gain, gazteak eta ikasleak garela aprobetxatuz, **diru laguntzak eta bekak** eskatuko ditugu. Batez ere; enpresa sortzerako garaian izango ditugun gastu guztiei aurre egin ahal izateko.